



ZER DAKIT EUSKARAZ ETA EUSKAL KULTURAZ? KAHOOT! LEHIAKETA

Aurre ezagutza aktibatu! Hausnarketarako ildo. **Irakaslearentzako gidoia.**

Ariketa honek ikasleen artean hausnarketa bideratzea du helburu. 45-60' saioa aurreikusten da.

- Azaldu zure ikasleei zein den ariketaren helburua. Banaka jarri itzazu ordenagailu edo chromebook batekin.
- Kahoot! lehiaketan aritu: <https://labur.eus/46neM>
- Bukatutakoan, jarri ikasleak bikoteka. Eman 5 minutu beraien artean erantzun dutena komentatzeko eta konparatzeko. Lagungarriak izan daitezkeen galderak: Zenbat galdera asmatu dituzue? Zenbat huts egin? Zergatik? Ezagutzen zenituzten pertsonaiak euskaldunak ala erdaldunak dira?
- Laukoteak egin oraingoan. Prozedura errepikatu, hau da, erantzunak komentatu eta konpartitu ditzatela.
- Azkenik, talde handian, erantzunak komentatu eta ateratzen dituzuen ondorioak idatzi itzazue.
- Bigarren fasean egingo den lanketari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, fase hau garatzea gomendatzen da eta bertatik jasotako ondorioak Azkue Fundaziora helaraztea komeni da: bisita@euskararenetxea.eus

